

#EmakumeakBizikidetzan

ANIZTASUNEAN BIZIKIDETZA



#EmakumeakBizikidetzan Aniztasunean bizikidetzatza

Idazketa eta edizioa:

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)



Diseinua eta maketazioa:

Maite Rosende

Inprimatzea:

Ereka Multimedia s.coop.

Itzulpena:

ARTEZ Euskara zerbitzua Koop. E

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euzko Legebiltzarra
Euzko Legebiltzarra



2018ko abendua

AURKIBIDEA

1.	Sarrera.....	1
2.	Aniztasuna gaur egungo gizartean.....	3
	2.1 Aniztasuna kudeatzeko ereduak.....	5
	2.2 Aniztasuna modu ireki eta demokratikoan kudeatzeko printzipioak.....	7
3.	Begiratu bat genero-ikuspegitik.....	9
4.	Emakume gazteekin hizketan bizikidetzari buruz.....	11
	4.1 Testigantzak.....	12
	4.2 Dinamika parte-hartzailea.....	16
5.	Desiren putzua.....	18
6.	Eskaerak eta proposamenak.....	20
7.	Itxiera.....	21
8.	Aipamen bibliografikoak.....	22

1

SARRERA

Gaur egungo gizartearen arduren agenda berria dago, aniztasuna eta elkartzasuna bezalako baloreetan oinarritutako bizikidetzeta edota hezkuntza kudeatzeari lotutakoa. Erljio- eta kultura-aniztasuna dira horren adibide garbiak. Horiek bezalako errealitateek zenbait eztabaida pizten dituzte, eta kolokan jartzen dituzte orain arte eztabaidaezinak ziren, eta oinarritzko balore, eskubide eta askatasunen hautemateari eragiten dioten printzipio orokorrak (Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia, 2017).

Euskadin gero eta identitate gehiago daude eta gero eta anitzagoa da gizartea. Desberdintasunak eta identitate anitzak begirunez integratzea aldi berean da desafioa eta aukera-iturria. Euskadiko Gazterien Kontseiluaren ustez (EGK), horrek guztiak erronka berriak ekarriko ditu, nahitaez: pentsatu beharko da ea zelan gauzatu giza eskubideen errespetuan eta aniztasunaren kudeaketa positiboan oinarritutako bizikidetzeta.

EGK-k txosten hau argitaratu du aniztasunean oinarritutako bizikidetzak gazteei dakarzkien erronketan sakontzeko. Argitalpen hau egiteko ideia sortu zen EGK-k 2018ko irailean, Bakearen Nazioarteko Egunaren kariatz, antolatutako ekitaldi batean. 2017an [#GazteokBizikidetzan](#) ekitaldian egin bezalaxe, EGK-k elkarrizketarako, hausnarketarako eta adierazpen artistikorako gunea ireki zuen, bizikidetzan eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura garatzen laguntzeko. Oraingo honetan, [#EmakumeakBizikidetzan](#) izena eman zitzaion, berdintasunari –zeharlerroko balore gisa– dagokion balioa aitortzeko. Helburua izan zen beste aurrerapauso bat ematea eta aniztasuna genero-ikuspegitik aztertzea, EGKren diskurtsoaren baitan dagoen ikuspegia eta [Jñilbide Moreak: emakume gazteen egoera lan munduan](#) bezalako txostenetan islatu dena. Horrek ahalbidetuko zuen emakume gazteek bizikidetzan zitutzen errealitateak identifikatzea eta emakume horiek etorkizunean sor ditzaketen emantzipazio-lerro berriak agerian jartzea.



Xede nagusia, beraz, izan zen identifikatzea emakume gazteek zer erronka dituzten, gero eta anitzagoa den gizarte baten bizikidetzan.

Zer konpromiso daukate emakume gazteek bizikidetzari dagokionez? Zeintzuk dira esparru horretan arduratzen gaituzten gaiak?

Zer eskatzen diogu etorkizunari, bizikidetzaren alorrean? Zer eskatuko genieke gizarteari eta administrazioei?

Argitalpen honek, batetik, ekitaldi haren ondorioak jasotzen ditu; eta, bestetik, aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren esanahia buruz hausnartzen laguntzen diguten kontzeptu eta ideia nagusietarako testuingurua eskaintzen du.

Hauxe da dokumentuaren egitura: lehenengo eta behin, hurbilketa teoriko oso orokorra egiten da, aztertzeo zer den aniztasuna eta zeintzuk diren kontzeptu hori lantzerakoan aintzat hartzea komeni den elementuak. Gero, aniztasuna kudeatzeko eredu batzuk azaltzen dira eta, jarraian, kudeaketa egokia egiteko oinarriko printzipioak. Bigarrenik, aniztasuna aztertzen da genero-ikuspegitik. Hirugarrenik, [#EmakumeakBizikidetzan](#) ekitaldian parte hartu zuten hiru emakumeren testigantzak datoz. Aipatutakoaz gain, osteko dinamika parte-hartzailean sortutako hausnarketa eta ideien analisisa eskaintzen du agiriak. Azkenik, desiren putzua zer den azaltzen duen atala dago. Txostena amaitzen da gazteek aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren inguruan egindako eskaera eta proposamen batzuekin.

Gizarte anitz eta pluralatan bizi gara. Lurralde bera partekatzen badugu ere, gure jatorria, hizkuntza eta ohiturak ez dira berdinak. Aniztasuna gure errealitatearen parte da, eta, bizikidetzari begira, hura modu positiboan kudeatu ahal izateko moduan antolatuta behar dugu.


Baumanek, *Extraños llamando a la puerta* liburuan dioenez, populazio-dentsitatearen hazkunde etengabea da bizikidetzan aldaketak egon izanaren arrazoietakoa bat. "Bakarrik azken bi mendeetan (..), puntu batera heldu gara non gutako bakoitzak planetako beste 7.000 milioi biztanleetako edozeinekin harremanetan jartzeko aukera irudika dezakeen" (Bauman, 2016:67). Beraz, populazio-mugimendu berriek areagotu egin dute lehenagotik ere existitzen zen aniztasuna. Horrek guztiak aniztasun-egoera berriak sorrarazi ditu eta horiek kudeatzen jakin behar da.

Gizarte anitzen ezaugarri den pluraltasun horretan, bestalde, identitate kolektibo desberdinak sortzen dira.

Eta identitate kolektiboak definitzen dituzten elementuak, erlijioa, kultura, hizkuntza, eta abar bezalakoak, oinarri-zkoak dira gizaki ororen nortasunaren garapenerako. Mobilizatzen duten faktoreak dira erlijioa, hizkuntza eta kultura; bizikidetzatza sozialerako guneak sortzen dituzte. Norbanako bakoitzak modu desberdinean bizi ditu faktore horiek. Adibidez: norberaren hautua da erlijioa izatea ala ez izatea. Bestalde, aipatutako elementu horiek espazio publikoan egotea oso garrantzitsua da faktore hauek partekatzen dituztenentzat eta, horrek, egunerokoari lotutako zenbait gairen inguruko eztabaida eragiten du. Batez ere, gizarte pluralen gune publikoetan elementu horiek agertzea baimentzeko edota debekatzeko moduei buruz (lan-egutegiak, erlijio-gurtza egiteko zentroak zabaldu ala ez; elikadurari, janzkerari, finantzaketari eta abarri lotutako eztabaidak; eta abar).

Erronka potolosa da hain pluralak eta anitzak diren elementu horiek guztiak kudeatzea, pertsona bakoitzak oso beste-lako iruditeria duelako kontzeptu bakoitzaren esanahiari buruz. Finean, pertsona guztien askatasuna eta berdintasuna bermatzeko baldintzak sustatzea da kontua. "Gizarte batean bizi eta lan egiten duten norbanako guztiak herritar-rrak direla onartzea da eskubide eta obligazioei buruz hitz egiteko beharrezko abiapuntua" (Ruiz Vиейtez, 2012:10).

Zelan kudeatu elementu plural horiek guztiak? Nekez kudea daiteke ezagutzen ez den zerbait. Identitatea eraikitzen da beste norbaiti lotuta, edo beste norbaitekin alderatuta. Berdina eta desberdina behin eta berriro interpretatzean datza; eta, hortik, 'gu/haiek' binomiorako jauzia dator. Ruiz Vieytezek (2012) adierazi du bereizketa hori datorrela aniztasuna aitortzetik, eta, berez, ez dela baztertzailera. Desberdintasunak badaudela onartuz gero, naturala eta beharrezkoa da nortasun-elementu jakin batzuk partekatzen dituztenak eta partekatzen ez dituztenak bereiztea.



Izaolak ideia hau berresten du: "Ezinezkoa da gure parekoekin harremanetan egotea, haien eta gure arteko desberdintasunak ezartzen dituzten kategoriak tartean izan gabe" (2016:23). Beste pertsona antzemateko moduak finkatzen du harekin zer-nolako harremanak izango ditugun. Beste pertsona hauteman eta definitu egiten da. "Batez ere, diskurtsoaren bitartez eraikitzen da kultura-desberdintasuna" (Izaola, 2016:19).

Norbanakoez askatasuna bezalako oinarriko eskubide batzuk partekatzeak ez du esan nahi kulturaren eta identitatearen aldetik berdina direnik. Eta, hain zuzen ere, pertsonak desberdinak direnez, beharrezkoa da kolektiboak ere bereiztea, eta bakoitzari dagokion aitortza egitea. "Preseski, horrek norbanako bakoitzaren duintasun individualari eragiten diolako; eta haren garapenaren eta gizarteratzearen parte delako eta izango delako" (Ruiz Vieytes, 2012:24).

2.1 ANIZTASUNA KUDEATZEKO EREDUAK

Errealitatea hori izanda, **zelan kudeatu gure gizartean dagoen aniztasuna?** Aniztasuna kudeatzeko zenbait eredu daude, eta beste hernalde batzuetan erabili izan dituzte horietako batzuk. Ruiz Vieytezen arabera (2012), hiru arau-gintza-aukera handi bereizten dira, oro har:

A Asimilazionismoa

Frantziako eredu, seguruena nazioartean gehien erabilirikoa. Immigratzaileak gizarteratzeko, kultura- eta identitate-aldaketa edo -ordezte prozesua abiarazi behar dela dio. Integrazio-prozesu horretarako, kultura-elementu eta erreferente minoritarioak baztertu, eta nagusietan parte hartu behar da. Herrialde demokratikoetan, eremu publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa zorrotzean oinarritu ohi da eredu. Eremu publikoa kultura dominatzailearentzat izan ohi da, eta desberdintasunak libreki azaleratu ahal dira eremu pribatuan. Gizarteratzea lortuko da berdintasunaren ideia oso formaletik abiatuta. Legea berdin aplikatzen zaie norbanako guztiei, haien kultura edo identitatea aintzat hartu gabe. Zentzu horretan, talde minoritarioak abandonatuta geratzen dira kultura dominatzailearen barruan, eta, beraz, aberatsak edo boteretsuak diren gutxiengoek baino ez dute biziraungo haientzako eremu espezifikoak sortuta (Ruiz Vieytez, 2012: 56-57).

Ikuspegik atzeritarren hautemateari eta jarrereri buruz argitaratutako azken *Barometroaren* arabera (2018), euskal gizartearen gehiengoak (%74,5), hasiera batetan, uste du bizikidetzaren aldeko ahalegina partekatua izan behar dela. Uste du egokitzeko saiakera egin behar dutela bai bertakoek, bai atzeritarrek. Ordea, gehienek (%74,6) uste dute atzeritarrek egin behar dutela egokitzeko ahalegina. Eta %21ek bakarrik uste du ahalegin hori bertako biztanleei dagokiena.

Beraz, euskal biztanle gehienentzat (%74,6) bizikidetzatza ona eraikitzearen gakoa baldin bada etorkinek ahaleginak egitea gure ohiturak eta tradizioak berenganatzeko, horrek esan nahi du Euskadin asimilazionismoa dela, oraindik ere, gizarteratze-eredu nagusia.

B Diferentzialismoa:

Alemanian aplikatutako erueda da eta etorkinak, herritar berri moduan baino, (behin-behinean) gonbidatutako langile gisa hartzen ditu. Eredu horrek bilatzen du komunitate minoritarioek talde sozial nagusiarekin duten harremana desagerraraztea. Eta, horren harira, komunitate txiki horiei murriztu egiten die bitzitza publikoan parte-hartzea. Beharrezkoa ikusten du talde minoritarioentzako erakunde espezifikoak gara daitezela sustatzea, gehiengoak erabilitako erakundeen paraleloan jarduteko. Ikuspuntu komunitaristagoa da, eta larriki mugatzen du pertsonen kultura-askatasuna. Izan ere, kultura-taldeak berezita mantendu nahi ditu, uste duelako hori dela modurik onena gizarte-harmonia bermatzeko eta etorkinei beren jatorrizko gizarteetara itzultzeko bidea errazteko (Ruiz Vieytes, 2012: 57-58).

C Multikulturalismoa:

Kanadan edo Australian jarraitzen duten erueda da. Herbehereetan eta Erresuma Batuan ere, neurri batean, eredu hori aplikatzen dute. Joan den mendeko hirurogeiko hamarkadan sortutako ikuspuntua da. Gizartearen elkarrekin bizi diren kultura desberdinen aitortza espresua egiten du, eta desberdinak izateko eskubidea aldarrikatzen du. Norbanako eta kultura-talde guztien parte-hartze osoa eta parekidetasuna bilatzen ditu; eta, aldi berean, talde guztiek beren identitatea mantendu eta garatzeko aukera aurreikusten du, laguntza publikoarekin. Eredu pluralista horretan, erakunde publikoak berriro diseinatu behar dira, gizartearen dagoen aniztasunera egokitzeko. Beraz, aparatuko publikoak esku hartu behar du kultura-eremuan, aniztasunari erantzuteko eta kulturalki ahulena diren taldeek paira ditzaketen urritasunak arintzeko. Horrela, bada, gizarte osoaren berezko aberastasun gisa hartzen dira desberdintasunak (Ruiz Vieytes, 2012:58-60).

Multikulturalismoa eta interkulturalismoa bereizi beharra dago. Bigarren horrek gero eta sona handiagoa du, baina, Ruiz Vieytezek azaldu bezalaxe (2012), ez dago argi multikulturalismotik bereiz daitekeen ala ez. Interkulturalismoa multikulturalismotik bereizitako eredu berri gisa aurkezten dutenen argudioa da bigarrenak talde desberdinak babesten dituela, baina bakoitzari bere aldetik, eta horrek ez duela bermatzen beharrezko kohesio soziala. Ordea, argitu behar da multikulturalismo demokratikoak berariaz jasotzen duela, jatorritik, taldeek elkarri eragin eta aberasteko beharra. Ondorioz, interkulturalismoak ez dio erabat berria den ezer gaineratzen multikulturalismoak hasieratik planteatutakoari. Finean, bigarrenaren eguneratze bat bezala har daiteke lehen; eta esan daiteke azpimarratzen duela taldeen arteko harremana eta kultura eta identitateen arteko elkarrekinntza.

Aniztasuna aitortzeak ez du esan nahi pertsona orok sakon ezagutu behar dituela kultura, hizkuntza edo erlijio guztiak. Aniztasunean edota aniztasunarekin bitzitzea da kontua. Ulertzea gure gizartearen dauden beste kulturek ez diotela gureari lekua kentzen. Gizarte desberdin, plural eta ireki baten aukerak eta abantailak ikustea.

Ezinezkoa da gure gizartearen dauden kultura guztiak ezagutzea; hori, gainera, ez da beharrezkoa, ez nahikoa, aniztasuna egokiro kudeatzea lortzeko. Batez ere, arreta jarri behar zaio aniztasunari zer-nolako jarrerarekin aurre egiten zaion. Dogmatismoaren, ezjakintasunaren eta zurruntasunaren aurrean, aniztasuna ekonomikoki, kulturalki eta sozialki gizarte aurreratu baterantz hazteko aukera gisa ikusten duten jarreraren aldeko pedagogia egin behar da, non bakoitzak bere identitatea mantendu ahal izango duen, alboan duenarena aldatu gabe (Ruiz Vieytes, 2012).

Ikuspegirik aurrean argitaratutako *Barometrora* itzulita, euskal biztanleen %50,5ek onartzen du atzerriko pertsonak etortzeak onura ekonomikoak eta funtzionalitatea dakartzala. Ikuspegiaren *Barometroko (2018)* datuek adierazten dute joan den urtekoa baino apur bat optimistagoa den ikuspegia azaltzen ari dela, etorkinek euskal gizarteari egindako ekarpen globalari buruz. Horrek lotura zuzena dauka gaur egungo testuinguru sozialarekin: ahulagoak direnez krisi ekonomikoaren ondorioak, neurri handi batean errazagoa da ikuspegi baikorragoa eta ez hain murriztatua izatea immigrazioari buruz, euskal gizarteak ez duelako fenomeno hori arrisku gisa hautematen.

Beste kultura, identitate, erlijio, hizkuntza edo ohiturak ezagutzea oso positiboa izan daiteke, aniztasuna hobeto kudeatzea lortzeko. Ordea, benetan garrantzitsua dena da aniztasunaren aurrean hartzen den jarrera eta ez hainbeste hura ezagutzea. Aniztasuna egokiro kudeatzeko aintzat hartu beharreko oinarritzko printzipio batzuk jasotzen ditu hurrengo puntuk.

2.2 ANIZTASUNA MODU IREKI ETA DEMOKRATIKOAN KUDEATZEKO PRINTZIBIOAK

- A** Onartzea herritarrek identitate pluralak dituztela. Ulertzea hizkuntza, erlijioa, baloreak, bizimoduak eta abar bezalako kultura-erreferenteak aitortu, errespetatu eta positiboki baloratu behar dituztela pertsona guztiak. Horrek guztiak esan nahi du identitate nagusiak eta gainerako identitate minoritarioek elkar onartu behar dutela.
- B** Naturaltasunez onartzea 'gu/haiek' dikotomia soziala existituko dela, etengabe. Alde batera utzi behar da jarre- ra uniformizatzailea, bizikidetzarako ez baita beharrezkoa gu guztiok berdinarik izatea, edota oinarritzko kultura-erreferente berdinarik partekatzea.

**Ohitu behar dugu desberdintasunean bizitzera,
aniztasunarekin bizitzera.**

C Beste pertsonak definitzeko eta gure eskemetan sailkatzeko dugun tema baztertu behar da. Inork ere ez du eskubiderik beste bati bere identitate-definizioa inposatzeko, horrek ekarriko lukeelako haren oinarrizko eskubideetako bat deuseztatzea eta oinarrizko eskubide hori beste askoren oinarria da. Talde etniko edo hizkuntza-talde bati ezin zaio inposatu hizkuntza, erlijioa, identitate nazionala edota nazio baten parte izatearen sentimendua. Elementu horiek guztiak partekatu egin behar dira herritar bakoitzaren askatasunetik (Ruiz Vieytes, 2012).

Gaur egungo gizarte demokratiko ereduak kulturartekoak izatera garamatza, hau da, desberdinak direnekin batera bizitzera. Horrek geure identitatea aldatzera behartzen gaitu, baina, aldi berean, eskatzen digu bizikidetzatza harmoniatua izatea beste identitate eta kultura batzuk dituztenekin. Beraz, komeni da **trebetasun** batzuk garatzea:



A Gauzak beste ikuspuntu batetik ikustea, eta autokritika egiteko gaitasuna izatea; eta onartzea parekoak direla gure kultura eta mundua ikusteko beste molde batzuk. Elkarrekin bizitzea da onartzea gure ikuspuntuak osatutabeak direla (horrek dogmatismoa prebenitzen du, eta elkarriketa eta indarkeriarik eza sustatzen ditu).

B Enpatia. Ulertzea beste pertsonen errealitatea hautemateko modua. Enpatiarako eta etengabeko elkarriketarako ahalegina egin beharra dago.

C Elkarriketa: Bestelakoak diren pertsonen aditzea eta haiekin hitz egitea. Malguagoak izatea eta negoziatzen jakitea.

Gaitasun horiek, gainera, erakunde publiko eta pribatueta, eta gizarte gidatzen duten eragile politiko eta sozial nagusietara hedatu behar dira.

Aniztasunaren kontzeptuari buruz hitz egin da atal honetan; izan ere, gaur egungo gizartearen parte diren herritarren ezaugarrietako bat da. Gizarte irekiagoa, pluralagoa eta norbanakoen eskubide guztiekien adeitsuagoa izateko beharra sumatzen da. Alabaina, orain arte ez da zuzenean aipatu zelan eragiten dion generoak aniztasuna bizitzeko eta kudeatzeko moduari. Zer eragin du generoak, klasea, etnia edota erlijioa bezalako beste desberdintasun batzuekin konbinatuta? Datorren atalean landuko da gai hori.

3

BEGIRATU BAT GENERO-IKUSPEGITIK

Aniztasunean oinarritutako bizikidetzatza-ereduetan zeharreko ibilbidea egin da aurreko atalean, eta bizikidetzatza hori gauzatu ahal izateko gako batzuk jasotza dira. Atal honetan, berriz, kultura-, erlijio- eta gizarte-aniztasuna nabarmendu nahi da, eta hura genero-ikuspegitik aztertuz. #EmakumeakBizikidetzan ekitaldian jokua jarri zen emakume gazteengan, ulertzen delako gizarte aniztekek berezkoak duten pluraltasun horren barruan sexua eta generoa ere aintzat hartu beharreko elementuak direla identitateak eraikitzerakoan.

Identitatea eraikitzeke lehen aipatutako prozesuari gehitu behar zaio sexuak norbanakoa sailkatzeko, izendatzeko eta kokatzeko duen funtsezko papera. Emakume eta gizonen sexu biologikoak bereizi ohi dira. Beste alde batetik, generoa sortzen da sexu biologikoan oinarritutako desberdintasun horietan oinarrituta. Generoa sinbolizazio zehatz batzuek osatzen dute, eta, emakume ala gizon izan, sozializazioa desberdina da. Horren harira, ezaugarri femeninoak edota maskulinoak esleitzen zaizkio ideia, jardunbide eta diskurtso mota bati (Lamas, 2018).

Generoa, gaur egun, eraikuntza sozialtzat hartzen denez, 'genero' eremu berria zabaldu da, kontzeptu hori analisirako kategoria gisa hartzen duena eta beraz hedatu ere egin duena, klasea, etnia edota sexu-orientazioa bezalako desberdinkeria batzuk ere aintzat hartuta. Kategoria horiek elkarri eragiten diote eta egoera bakanak sortzen dituzte, kualitatiboki desberdinak. Intersektionalitate hitzak –desberdinkerien eta generoaren arteko elkarguneak– jasotzen ditu, hain zuzen ere, askotariko desberdinkeria horiek (Royo Prieto et al.).



Beraz, **azpimarratu behar da existitzen diren askotariko desberdineriek garrantzi handia dutela eta generoaren eta beste kategoria batzuen artean ematen dira** -adibidez: erlijioagatiko, arrazagatiko, etniagatiko, kulturagatiko eta abarregatiko desberdineriak-. Ezaugarri-multzotzat izateaz gain -emakume beltza, musulmana, arabiarra...-, bereziki zaurgarria den egoera berezia irudikatzen dute (Cárdenas, Terrón eta Pérez de Guzmán, 2014).

Euskal gizartearen, non askotariko emakumeak bizi diren elkarrekin, zer esan nahi du emakume musulmana izateak? Eta emakume ijitoa izateak? Zailtasunak areagotu egiten dira arazoari genero-ikuspegitik heldu, eta aztertzen denean ea horrek zer-nolako harremana duen kulturarekin (Blanco eta San Segundo, 2016). Arrazagatiko edota kulturagatiko bereizkeriak ez die berdin eragiten emakumei eta gizonei hartara, konnotazio desberdinak ditu emakume beltza izateak ala gizone beltza izateak.

Kultura jakin bateko emakume batek, emakume izate hutsagatik, kultura horretako gizonek baino egoera konplexuagoa jasan dezake gizarteratze- eta sozializazio-prozesu osoan zehar. Bereizkeria horiek aurki daitezke eremu ekonomikoan, hezkuntzan, familian... Eta, EGKtik, diskriminazio horietatik eratorritako bizipenetan sakondu nahi izan da. Askotariko emakume gazteen testigantzak jasotzen dira hurrengo atalean, eta aniztasunean oinarritutako bizikidetzan zer-nolako erronkei egin behar izaten dieten aurre.



1 Diskriminazio anizkoitza: norbanako bakoitzak diskriminazioa paira dezakeen egoera sorta. Pertsona berean pilatutako bereizkeria desberdinak irateke.

4

EMAKUME GAZTEEKIN HIZKETAN BIZIKIDETZARI BURUZ

[#EmakumeakBizikidetzan](#) jardueraren helburua izan zen guneak sortzea, emakume gazteek elkarrekin hitz egin, eta aniztasunean oinarritutako bizikidetzari buruzko beren bizipenak partekatu ahal izateko. Ekitaldiaren xedea, oro har, izan zen hausnartzea gazteek, gaur egun, bizikidetzaren alorrean dituzten konpromisoei buruz eta etorkizunerako haien desirei buruz.

Askotariko ikuspuntuak izateko, hiru emakume gazteren laguntza jaso zuen EGK-k: Cheija Abdalahe, Saharako errefuxiatuen kanpalekueatik etorritako emakume gaztea, hamar urte baino gehiago daramana Euskadin bizitzen; Betsy, emakume gazte mexikarra, zeina ikastera etorri baitzen Euskadira, eta, luzarago geratzea erabaki ostean, gaur egun hemen dagoen lanean eta master-ikasketak egiten; eta Palmira Dual, Irungo emakume ijito gaztea, EGK-ko elkarte den [Kale Dor Kayiko](#)-ko kidea.



4.1 TESTIGANTZAK

Hiru emakumeen testigantzek eman zioten hasiera ekitaldiari. Zuzeneko musika ere izan zen, ikus-entzuleei laguntzeko hiru gazteen testigantzetan sartzen.



Kultura, erlijio eta jatorri desberdina zuten hiru emakumeek helburu komuna zuten: emakume gisa aniztasunarekin abegikor jokatu duen gizartea eraikitzen izandako beren bizipenen berri ematea.

Bada, haien hausnarketetako batzuk jasotzen dira atal honetan. Hausnarketa horiek, gainera, ikus-entzuleekin egindako dinamika parte-hartzaile baten elkarrizketetarako oinarri ere izan ziren.

Cheija izan zen lehenengo hitz egin zuena. 'Bizikidetzatza' kontzeptuari zentzu positiboa hartzen ziola azpimarratu zuen, hasiera-hasieratik. 20 urte zituela etorri zen Espainiara. Kontatzen duenez, herrialde berri batera heldu zen, itxaropenez eta ilusioz beteta, gauza onak aurkituko zituela pentsatuta. *"Baina ez zen horrela izan. Lau urtez egon nintzen paperik gabe. Eta emakumea bazara, errefuxiatua, sahararra, arabiarra, atzermikoa eta antzeko termino arraro sorta ederra, eta, gainera, beloa badaramazu... Orduan, ezin duzu horrenbeste espero"*.

Chejjak, orduan, galdetu zion bere buruari ea ez ote zen akatsa izan atzerriko herrialde batera joatea hain itxaropen altuekin, oso handia izan zelako talika bertan topatutako errealitatearekin. Baina, atzera begira, esan zuen, konturatu dela bizi izandako zailtasunei esker gehiago borrokatu zela lortu nahi zuenaren alde: kazetaritza ikastea eta feminismoari eta generoari buruzko doktoretza egitea. *“Esan nahi dudana da zerbait nahi badugu, lortu egiten dugula. Zeure aukeretan eta nortasunean sinetsiz gero, gainerakoak onartzen hasiko zara”.*

Chejjak dio ez zuela inoiz arazorik izan besteak onartzeko, agian, errefuxiatuen kanpalekuetan bizi izan zenez, txikitik zegoelako ohituta askotariko jendea ezagutzera, munduko bazter guztietakoak. Harentzat, parekoak ziren norbanako guztiak. Hori dela eta, oso deigarria egin zitzaion gizarte demokratiko batean hainbeste eskala sozial ikustea. *“Hurkoa onartzea da kontua. Niretzat, bizikidetza da jakitea ez nagoela bakarrik; beste pertsonak ere hortxe daudela; eta esan ditzakegun gauzek, gure azalaren koloreak, gure sinesmenek edota beste edozerk desberdintzen bagaitzute ere, gehiago dela elkartzeko gaituena, gure gizartea hobetzea bilatzen dugula denok esaterako”.*



Chejjak uste du aniztasunean oinarritutako bizikidetak aberatsago, balioetsuago egiten duela gizartea. *“Oinarri-oinarritik sortzen dira bizikidetzaren baloreak”.* Chejjak dio besteak onartzea landu behar dela. Eta, zentzu horretan, garrantzi berezia ematen dio emakumeen eskubideak aitortzeari: *“Itxura batean, gizonen eskubideak bermatuta daude. Aldiz, guk, emakumeek, jo eta ke aritu behar dugu etengabe, borrokan, borrokan eta borrokan (gure eskubideen alde)”.*

Esplizituki hori bilatu ez bazuen ere, Chejjaren kontakizunak islatu zuen emakumeek pairatzen duten askotariko bereizkeria. Izan ere, arraza, kultura, erlijio edota gizarte-klaseak eragindako bereizkeriari, emakume izateak eragindakoa batzen zaio askotan. Haren hitzetan, *“ez da bakarrik gizartearen aldeko edota atzeritarrek onartzearen aldeko borroka: gizonek gu eta guk gizartearen dugun rola onartzeko borroka ere bada, uler dezaten gu haiek bezain garrantzitsuak garela”.*

Beste ideia garrantzitsu bat ere aipatu zuen Chejjak: eskubide-berdintasuna eskatzeak esan nahi du obligazio-berdintasuna ere egon behar dela. Oso garrantzitsua da ulertzea eskubideek obligazioak dakartzatela.


Gero, **Betsyren** txanda izan zen. Mikrofonoa hartu eta Euskadira etorri zen lehen aldiko bere bizipenak kontatu zituen gradu-ikasketak egitera etorri zen gazte mexikarrak. Kontatu zuen nahiko itxiak ziren pertsonen taldea topatu zuela, eta lehenengo urtean kosta egin zitzaiola aurkitzea norekin harremanak izan, euskal gazteen artean. Atzera begira, uste du aldaketa eman zela besteek ulertu zutenean bera geratzeko etorri zela. Egoera irauli, eta, euskal gizartearen ohituretara moldatzen joan ahala, gero eta integratuago sentitzen joan zen.

Gero, bigarren talka etorri zitzaion: *“konturatu nintzen hogeita bat urtez guztiz bestelako errealitate batean bizitzea egon nintzela. Errealitate batean non, adibidez, guztiz naturala den emakumea erasotzea; non erabat normalizatu egiten duzun egoera hon”*. Berak guztiz normalizat zuen Mexikon emakumeei emandako tratua, eta, aldi batez Euskadin bizi eta gero, konturatzen hasi zen emakumeek pairatzen duten askatasun-falta hori ez dela bidezkoa. Desberdinkeria buruz hitz egiterakoan testuinguruak duen eragin handia mahaigaineratu zuen Betsyk.



Hirugarren parte-hartzaileak, **Palmirak**, kontatu zuen [Kale Dor Kayiko](#) -etorkizuneko ijitoak da elkartearen izenaren esanahia- elkartearen laguntza ematen duela tarteka, bitartekari sozio-kultural gisa. Kontatu zuen ikasle ijitoentzako erreferente izateak ate asko ireki zizkiola, eta aukera asko ekarri.

Aurreko bi gonbidatuek ez bezala, Euskadin jaio zen Palmira. Ordea, esan zuenez, *“(ijitook) askotan, kanpotarrak sentitzen gara”*. Eta ez litzateke horrela izan behar, 600 urte baino gehiago daramatelako ijitoek Euskadin. Palmirak esan zuen halaxe gertatzen dela, ijito herriaren historia ez delako oso ezaguna: *“gu ez gara historiaren parte; ez gara historia-liburuetan agra”*.



Eta, aitortza hori gabe, begirunerik ez. Oso garrantzitsua da, beraz, ijito herriaren historia ezagutzera ematea, aurrejuzgu gehiago eragiten dituelako ezagutzen ez denak. *“Ezezagunak beldurra ematen du beti”*, esan zuen Palmirak. Eta, hain zuzen ere, ezagutza falta horren aurka borrokatzen da bera, elkartearen zein elkartetik kanpo: ijito etniaren historia eta ohituren berri ematen.

Ezjakintasunaren ondorioz, talde etniko txikiei buruzko aurrejuzguak eraikitzen ditu jendeak; eta, horren ondorioz, talde txiki horretako kideek bizitza osoa ematen dute egiten dutenaren gaineko azalpenak ematen eta beren jarduna zuzitzen. *“Emakume ijitoak askotarikoak gara, oso desberdinak gure artean; desberdintasun horiek onartzean datza bizikidetza”*. Cheijak esan bezala, Palmirarentzat ere adjektibo positibo ugari ditu aniztasunean oinarritutako bizikidetzak, aberastu egiten duelako. *“Tolerantzia da familian irakatsi didaten baloreetako bat”*. Egunero-egunero aurrejuzgu batzuei aurre egin behar diela aitortzen du Palmirak. Bere zeregin nagusia da *“nire ikuspuntuaz ezagutzera ematea, eta jendeari ikusaraztea etnia berekoak ez garen arren, balore ugari partekatzen ditugula, tolerantzia eta begirunea kasu”*.



4.2 DINAMIKA PARTE-HARTZAILEA

Gonbidatutako hiru emakumeen testigantza zintzoak entzun eta gero, **World Te** dinamika parte-hartzailea garatu zen, ikus-entzuleekin batera. Aniztasuna izan zen 20-30 urte bitarteko gazte-taldearen ezaugarrietako bat. Azpimarratu beharreko zerbait da hori, EGK-k uste baitu bizikidetzari buruz hitz egiterakoan balore hori sustatzea oso garrantzitsu dela.

Hiru biribiletan batu zen jendea, honako hiru galdera hauei erantzuteko:

Zer konpromiso daukate emakume gazteek bizikidetzari dagokienez?

Hona hemen jasotako ideiak:

- *Laguntzea*
- *Gazteak erreferente eredu-garria izaten hastea*
- *Bereiztea kultura-aniztasuna eta kulturartekotasuna. Ez dira gauza bera*
- *Kanpotarrak modu orokorrean gizarteratzea*
- *Konpromisoak, gure aldetik: enpatia sustatzea, maitatzea eta onartzea*
- *Ardurartzen gaituzten gaiak: komunikabideak, ezjakintasuna eta heziketa (gizartearen, familian eta eskalan)*

Zure ustez, garrantzitsua da kultura-aniztasuna eta generoa harremanetan jartzea? Emakumeek beste modu batean bizi dute aniztasuna?

- *Elkartasun-sareak ehundu behar dira*
- *Lurraldea, adina, kultura, erlijioa eta abar. Egoera desberdinak, aldarrikapen desberdinak*
- *Barrura begira, kultura-aniztasunean oinarritutako gizarteratzearen erranka dago!*
- *Erronka da genero-desberdintasuna zabaltea gizarteratu nahi duten kulturetan.*
- *Erakustea zelan garatu generoen arteko bizikidetzatza*
- *Emakumeen borroka bikoitza da: matxismoa/matriarkatua*

Zer eskatzen diogu etorkizunari, bizikidetzaren alorrean? Zer eskatuko genieke gizarteari eta administrazioei?

- *Hau bezalako guneak sortzeko laguntzak/erraztasunak ematea*
- *Gazte zein helduentzako hezkuntza. Ghettoetatik irtetea*
- *Enpatia*
- *Aniztasunerako proiektuak sortzea*
- *Aukera-berdintasuna*

Galdera horiek guztiak taldean hausnartu eta gero, bertaratutako guztien arteko eztabaidarako tarte ireki zen.

Sortutako lehen ideia zera izan zen: norberaren testuinguruaren arabera, berdintasunik ezak ez dira modu berean hautematen. Betsyrí, adibidez, bizitza gehiena Mexikon eman eta gero, ez zaito iruditzen genero-integrazioa arazo larria denik Euskadin. Kontatzen zuenez, Euskadiko eta Mexikoko emakumeen eskubideak alderatuz gero, iruditzen zitzaion hemen eskubideak aitortu egiten zaizkiela emakumeei, eta Mexikon, aldiz, emakumeek diskriminazio handia pairatzen dutela gizartearen.

Beste alde batetik, diskriminazio anizkoitzari buruz hitz egin zuten taldeko beste batzuek: *"Integratzerakoan, uste dut emakumeek eta gizonak ez dituztela erronka berdinak. Gauza bota da kultura, norberaren bizi-prozesua... Hori, berez, orbana izan daiteke; baina, horri, emakume izatearen erronka batzen zaio. Hemen ere, bikoitza da"*.

Parte-hartzaile guztiak esan zuten zaila egiten zitzaieela haien ohiko lagun-taldetik irten eta harremanak izatea beste nazionalitate edota kulturetako jendearekin, adibidez. Aitortu zuten hori erronka bat zela, eta, hala, eskerrak eman zituzten hau bezalako guneak sortzeagatik, non aukera dagoen desberdinak aditzeko eta haiekin hizketan aritzeko.



Parte-hartzaile guztiak esan zuten zaila egiten zitzaieela haien ohiko lagun-taldetik irten eta harremanak izatea beste nazionalitate edota kulturetako jendearekin, adibidez. Aitortu zuten hori erronka bat zela, eta, hala, eskerrak eman zituzten hau bezalako guneak sortzeagatik, non aukera dagoen desberdinak aditzeko eta haiekin hizketan aritzeko.

Horrez gain, heziketa azpimarratu zuten parte-hartzaileek: **zein garrantzitsua den txiki-txikitatik irakastea guztiz arrunta, naturala eta positiboa dela aniztasunean bizitzea.** *"Heziketa sozializazio-agente oso garrantzitsua da, bereizkeria guztiei aurre egiteko"*. Kontua ez da bakarrik gune berean batera existitzea, elkarrekin bizitzea baizik (alegia, desberdinen arteko kohesio soziala egotea). Horretarako, heziketaz gain, ezinbestekoa da hitz egiteko hau bezalako guneak sustatzen eta ahalbidetzen jarraitzea. Era berean, ikusgai jarri behar dira, ahalik eta gehien, hitz egiteko eta bizipenak trukatzeko espazio seguruak. Izan ere, bizipenak partekatzeak laguntzen du norberaren ikuspegi zabaltzen, errealitatea modu osoagoan hautematen.

Azkenik, hausnartu zuten ea erakunde publikoek zer-nolako papera izan behar duten, aniztasunean oinarritutako bizikidetzatza egoten laguntzeko. *"Hau bezalako jardunaldi gehiago egin behar dira, non atzerrikoek eta bertakoek elkarri eragitea sustatuko den; horixe da estereotipoekin hausteko modu bakarra"*.

5

DESIREN PUTZUA

Azkenik, ekitaldia amaitzeko, gazteei eskatu zitzaion txartel indibidualetan idazteko bizikidetzari lotutako etorkizuneko desira bat. Desira hori, gero, **Desiren putzuan** sartu zuten, EGK-k hura 'berreskuratu', eta proposamen gisa jasotzeko.

Helburu bikoitza izan zuen jarduera horrek: batetik, identifikatzea norberak bizikidetzari buruz zuen ideala islatzen ez zuen egoera bat; eta bestetik, irudikatzea testuinguru bat non egoera bidegabe hura ez zen erreala izango, eta non aukera izango zuten aldaketa eragiteko gakoak emateko. Horrela, jarduerak aukera eman zuen antzemateko zeintzuk diren gaur egun bizikidetzaren alorrean hobetu beharreko eremuak, eta ikusteko zein den gaur egungo gazteentzako gizarte ideala.



Aniztasuna ohikoagoa bihurtzea gure egunerokoa

Gu guztioi eskatzen digu aldatzeko ahalegina

Askatasuna eta berdintasuna

Jende eta istorio personal gehiago ezagutzea

Kulturartekotasuna areagotzea, kulturartekotasuna hazten ari den mundu batean

Norbanako orok aukera-berdintasuna eta eskubide berak izan ditzala, aintzat hartu gabe generoa, kultura edota bereko beste edozein ezaugarri

Nahi nuke erronkak gaur egungoak baino txikiagoak izatea. Bizikidetzatza proiektu natural eta normalizatua izan dadila

Bizikidetzatza eta gizarteratzean hezitzea

Aniztasunean oinarritutako kultura, bai generoari dagokionez, baita egunerokotasunari dagokionez ere.

Bizikidetzatza naturala, inor baztertu gabe. Posible da denon artean mundu hobea eraikitzea

Autokritika egitea, hurkoa larrutzean hasi aurretik.

Bizikidetzatza balore-ABERASTASUNEan bilakatzea

Kobazulo batetik irteten saiatzean, kontuz: ez sartu beste batean. Amarrua dira 'egia' edota 'zuzena'.

Enpatia garatzea eta beste kultura, erlijio eta nazionalitateei buruzko ezagutza handiagoa izatea

Gizarte gisa, zabalduko ahal ditugu pentsamoldeak eta bihotzak, eta lekua egin bestelakoak direnei. Pixkanakako prozesua da, baina, apurka-apurka, bagoaz bakerantz eta harmoniarantz

Gaurtik aurrera jaiotzen diren umeez desberdinu ez ditzaten ez genero, ez etniak. Denok pertsonak baikara.

Ezjakina ez den gizartea; hezkuntza

6

ESKAERAK ETA PROPOSAMENAK

Agerian geratu denez, gazteen etorkizunerako gurariak zenbait konturi lotuta daude. Edonola ere, komunean dauden puntuak eta elkarren artean dituzten harremanak identifikatu dira. Beraz, ondorio orokor batzuk atera dira:

**Gazteei ahotsa emateko gune parte-hartzaile gehiago sortzea**

- Eremu eroso, intimo eta seguru gehiago sortzeko beharri buruz mintzo dira gazteak. Kasu honetan, zehazkia, emakumeek hitz egin, hausnartu eta bizipen pertsonalak partekatu ahal izateko guneak aldarrikatu dituzte.
- Garrantzitsua da, gainera, gune horietako batzuetan bertakoek eta atzeritarrek elkarri eragiteko aukera egotea, horrek estereotipoak hausten laguntzen du eta.

Aniztasunean oinarritutako bizikidetzatza sustatzen duten baloreak

- Askatasuna eta berdintasuna, abiapuntuan eta emaitzetan, bermatzeko baldintzak sustatu behar ditugu. EGKn uste dugu desberdintasunak errespetatzean datzala berdintasuna.
- Gazteek azpimarratu dute aniztasunean oinarritutako bizikidetzatza emango bada, beharrezkoa dela beginunetik jaiotako begirada; eta, horretarako, ezinbestekoa da enpatia garatzea.
- Giza duintasunaren errespetuak izan behar du bizikidetzatza eraikitzeo gutxieneo oinarri partekatu. Etnia, erlijioa, kultura edota gizarte-klasea baino garrantzitsuagoa da giza duintasuna. Eta funtsezko ideia horretan oinarritu behar da, izan ere, aniztasunaren kudeaketa.

Administrazio eta erakundeen konpromisoa

- Aniztasunean oinarritutako bizikidetzatza kudeatutako duten politikatza publikoak diseinatutako eta ezartutako konpromisotza hartu behar dutetza administratziotza eta erakunde publikoek. Politikatza horiek berdintasunean eta elkartasunean oinarritutata egon behar dutetza, eta gizarteratutera, kohesiotza eta justiziatza bideratutata joan behar dutetza. Eskubide-, betebehar- eta aukera-berdintasunata ahalbidetutako duen gizarteata bultzatut behar dutetza.
- Era berean, elkarrizketata, begiruneata eta desberdintasunak babestetata sustatutako duten politiken aldetoko apustuatza egin behar dutetza administratziotza eta erakunde publikoek; horrek ekarritoko duta anitzata den gizarteak bilatzen duen kohesio sozilatza.



7

ITXIERA

EGKren helburua da gazteen eskubideen, interesen, arduren eta beharrezanaren alde lan egitea; alegia, arazo espezifikoak aztertzea eta, hortik, politika publikoetan eragin ahalko duten eskaerak eta aldaketarako proposamenak lortzea. Beraz, gazteak eragin politiko eta soziala duten agente gisa hartuak izateko lan egiten du EGK-k.

Horretarako, mota askotako 57 elkarte baino gehiagoren laguntza jasotzen du, eta gazteei kezkatu eta interesatzen zaizkien gaietan protagonista izatea ahalbidetzen duten proiektuak sortzen ditu. Horren adibide da [gEmakumeakBizikidetzan](#) egitasmoa. Erlijioaren, kulturaren eta abarren aldetik askotarikoa den gizarte bateko bizikidetzaz ulertzeko beharrezanetik sortutako ekimena da. Bakearen Nazioarteko Egunaren kariaz egindako ekitaldia abiapuntua baino ez zen izan; etorkizunera ere bizikidetzaren, giza eskubideen eta berdintasunaren alorrean gazteen interesekoak diren zenbait gairi buruz hausnartzen jarraitzea bilatzen zuen. Txosten honek, bestalde, proiektuan parte hartu zutenen ekarpen nagusiak jaso nahi izan ditu; forma eta testuingunua eman nahi izan die ekitaldi hartan landutako ideia eta kontzeptu nagusiei. Horiek, dudarik gabe, EGKren diskurtsoa gorpuztu dute eta.



Bauman, Zigmunt. (2016). *Extraños llamando a la puerta*. Barcelona: Paidós.

Blanco, María eta San Segundo, Rosa. (2016). *Investigación joven con perspectiva de género*. Madrid: Genero-ikas-
keten institutua. Karlos III. Unibertsitatea, Madril.

Cárdenas, Rocío; Terrón, Teresa eta Pérez de Guzmán, Victoria. (2014). Educación, género y diversidad cultural. ¿Convivencia o coexistencia?. *Journal for Educators, Teachers and Trainers*, 5(3) liburukia, 54-67 or.

Ikuspegi. (2018). *Barometroa: Atzeritarren hautematea eta haienganako jarrerak*. Inmigrazioaren Euskal Bellaterra.

Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia, Eusko Jaurlaritza. (2017). *2017-2020rako Biziki-
detzaren eta Giza Eskubideen Plana*. Gizarte elkartzea helburu, enpatia aldeko hautua. Eusko Jaurlaritza.

Izaola Argüeso, Amaia. (2017). *Miradas entrecruzadas. La construcción social de la Otridad*. Bartzelona: Ediciones
Bellaterra.

Lamas, Marta. (2018). *Dimensiones de la diferencia en Género, cultura y sociedad*. 2018ko azaroaren 20an berresku-
raturu: <https://www.scjn.gob.mx/sites/default/files/igualdad/libros/documento/2016-12/Genero-cultura-y-sociedad.pdf>

Royo Prieto, Raquel; Alonso Álvarez Alba; Díez Sanz Ainhoa; Escudero Espinalt Ester; González Estepa Lía; Linares
Bahillo Estibaliz; Silvestre Cabrera, María. (2015). *Las asociaciones de mujeres migrantes en Bizkaia: herramientas
para la lucha contra las desigualdades múltiples*. [http://www.aecpa.es/uploads/files/modules/congress/12/paper-
s/1288.pdf](http://www.aecpa.es/uploads/files/modules/congress/12/papers/1288.pdf)

Ruiz Vieyetz, Eduardo. (2012). *Inmigración, diversidad e identidades culturales. ¿Problema u oportunidad?* Bilbao:
Biblioteca Básica de Formación.

Proiektua garatu du:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Industria, Merkataritza, Karrera-eragileriketa,
Erregimenak eta Turismo, Jantzeria eta Osasuna



EMAKUNDE

EMAKUNDE